



# AKTA

## Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2004ko urriaren 26a.

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

**DEIALDIA:** Lehena   **HASIERA-ORDUA:** 19:25

**AMAIERA-ORDUA:** 20:20

**BERTARATUAK:**   **Alkatea**  
Mirari Arruabarrena Elizalde

### **Zinegotziak**

Eneko Olariaga Arruti, Eugenio Cotado Iturain,  
Noemi Ostolaza Arkauz, Maria Elena Legarra Alfaro,  
M. Jose San Sebastian Aranburu, Ramon Etxeberria  
Aldaz, Andoni Sarasua Oliden, Martxiel Genoba  
Solaberrieta eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

### **Idazkari-Kontuhartzailea Funtziotan**

Ibai Lertxundi Iribar



## Aztergai zerrenda

1. Onartzea, egoki bada, 2004ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuraren akta.
2. Onartzea, egoki bada, urte anitzeko partida gisa izendatzea, Balea eta Abeslari Kaleen urbanizazio obrei dagokion aurrekontuaren partida.
3. Onartzea, egoki bada, 5/2004 zenbakidun Kreditu Aldaketako Espedienteari, Udal honen Aurrekontuaren 2004ko ekitaldiari dagokiona. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kredituen gehikuntza.
4. Onartzea, egoki bada, 6/2004 zenbakidun Kreditu Aldaketako Espedienteari, Udal honen Aurrekontuaren 2004ko ekitaldiari dagokiona. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kredituen transferentzia.
5. Onartzea, egoki bada, AGITAX-ek 2005. urterako aurkeztutako tarifa bateratuak.
6. Onartzea, egoki bada, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzaz hitzarmena udal honen sarrera propioen nahitaezko diru-bilketak egiteko.
7. Onartzea, egoki bada, Azurza Etxean Gizarte-zerbitzuak eta Babestutako etxebizitzak egiteko Egitasmoa.
8. Onartzea, egoki bada, Administrazio-Baldintza Zehatzen Plegua, proiektu teknikoaren arabera, Azurza Etxean Gizarte-zerbitzuak eta Babestutako etxebizitzak egiteko obrak kontratatzeko, prozedura ireki bidez, presako izapidetze eta esleipena lehiaketa moduz burutzea.



9. Onartzea, egoki bada, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren proposamena Udal honen Euskara Planaren zenbait punturen egokitzapena egiteko.
10. Onartzea, egoki bada, Orioko Udal Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa, Andoaingo Udalean 2004ko urriaren 16an izandako gertaeren inguruan.
11. Onartzea, egoki bada, EAJ eta EAK aurkeztutako mozioa, Mendebaldeko Saharako Herriaren determinazio librerako Bake Planaren alde.
12. Eskakerak eta galderak.

## **Esan-eginak**

### **1. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2004KO IRAILAREN 28AN EGINDAKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **AHO BATEZ**, honako hau **ERABAKITZEN DU**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

**ONARTZEA** Udalbatzarrak 2004ko urriaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta.



## **2. ONARTZEA, EGOKI BADA, URTE ANITZEKO PARTIDA GISA IZENDATZEA, BALEA ETA ABESLARI KALEEN URBANIZAZIO OBREI DAGOKION AURREKONTUAREN PARTIDA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko urriaren 21ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**IZENDATZEA** urte anitzeko partida gisa Balea eta Abeslari Kaleen urbanizazio obrei dagokion aurrekontuaren partida.

## **3. ONARTZEA, EGOKI BADA, 5/2004 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEARI, UDAL HONEN AURREKONTUAREN 2004KO EKITALDIARI DAGOKIONA. KREDITU ALDAKETA HONAKO MODALITATEAN EGIN DA: KREDITUEN GEHIKUNTZA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko urriaren 21ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**LEHENENGO.- HASIERAKO ONARPENA EMATEA** 5/2004 zenbakidun kreditu aldaketako espedienteari, udal honen aurrekontuaren 2004ko ekitaldiari dagokiona. kreditu aldaketa honako modalitatean egin da: kredituen gehikuntza.

**BIGARREN.- JENDAURREAN JARTZEA** aipatutako espedientea hamabost eguneko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Adierazitako informazio epea igaro eta



inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

**4. ONARTZEA, EGOKI BADA, 6/2004 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEARI, UDAL HONEN AURREKONTUAREN 2004KO EKITALDIARI DAGOKIONA. KREDITU ALDAKETA HONAKO MODALITATEAN EGIN DA: KREDITUEN TRANSFERENTZIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko urriaren 21ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**LEHENENGO.- HASIERAKO ONARPENA EMATEA** 6/2004 zenbakidun kreditu aldatetako espedienteari, udal honen aurrekontuaren 2004ko ekitaldiari dagokiona. kreditu aldateta honako modalitatean egin da: kredituen transferentzia.

**BIGARREN.- JENDAURREAN JARTZEA** aipatutako espedientea hamabost eguneko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

**5. ONARTZEA, EGOKI BADA, AGITAX-EK 2005. URTERAKO AURKEZTUTAKO TARIFA BATERATUAK.**

Udalbatzarrak Gipuzkoako Taxiaren Elkarteak eginiko proposamenaren berri jakiten du, hau da, Urola Kosta eskualdeari 2005. urtean hiri tarifa bateratuei dagozkiona. Tarifak hauek dira:



TARIFA BATERATUAK					
1. TARIFA			2. TARIFA		
Bandera jaitsiera	Egindako kilometroak	Ordua itxaroten	Bandera jaitsiera	Egindako kilometroak	Ordua itxaroten
2,6712	0,8374	16,0006	2,6712	1,3356	25,1432

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko urriaren 21ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**ONARTZEA** Gipuzkoako Taxiaren Elkarteak 2005. urterako aurkeztutako tarifa bateratuak.

## **6. ONARTZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA UDAL HONEN SARRERA PROPIOEN NAHITAEZKO DIRU-BILKETAK EGITEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako udal honen zuzenbide publikoen sarrera propioen nahitaezko diru-bilketak egiteko hitzarmenaren proposamena.

Segidan eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2004ko urriaren 21ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**LEHENENGO.-** **ONARTZEA** Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orioko Udalaren arteko zuzenbide publikoen sarrera propioen nahitaezko diru-bilketak egiteko hitzarmena.



**BIGARREN.**- **AHALMEN ZABALA EMATEA** Orioko alkate Mirari Arruabarrena Elizalderi, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin zuzenbide publikoen sarrera propioen nahitaezko diru-bilketak egiteko hitzarmena sinatzeko.

## **7. ONARTZEA, EGOKI BADA, AZURZA ETXEAN GIZARTE-ZERBITZUAK ETA BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK EGITEKO EGITASMOA.**

Udalbatzarrak Azurza Etxean gizarte-zerbitzuak eta babestutako etxebizitzak egiteko erreforma-proiektuaren berri jakiten du, Orioko Udalak sustatua eta Pilar Azurmendi Etxegarai udal arkitektoak idatzia.

Segidan eta Hirigintza Batzorde Informatzaileak 2004ko urriaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**ONARTZEA** Azurza Etxean gizarte-zerbitzuak eta babestutako etxebizitzak egiteko erreforma-proiektua, Orioko Udalak sustatua eta Pilar Azurmendi Etxegarai udal arkitektoak idatzia.

## **8. ONARTZEA, EGOKI BADA, ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN PLEGUA, PROIEKTU TEKNIKOAREN ARABERA, AZURZA ETXEAN GIZARTE-ZERBITZUAK ETA BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK EGITEKO OBRAK KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKI BIDEZ, PRESAKO IZAPIDETZE ETA ESLEIPENA LEHIAKETA MODUZ BURUTZEA.**

Udalbatzarrak Administrazio-baldintza zehatzen pleguaren berri jakiten du, Azurza Etxean gizarte-zerbitzuak eta babestutako etxebizitzak egiteko obrak



kontratatzeko, proiektu teknikoaren arabera, prozedura ireki bidez, presako izapidetze eta esleipena lehiaketa moduz.

Segidan eta Hirigintza Batzorde Informatzaileak 2004ko urriaren 25ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**ONARTZEA** Administrazio-baldintza zehatzen plegua, Azurza Etxean gizarte-zerbitzuak eta babestutako etxebizitzak egiteko obrak kontratatze, proiektu teknikoaren arabera, prozedura ireki bidez, presako izapidetze eta esleipena lehiaketa moduz.

## **9. ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKO JAURLARITZAREN HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAREN PROPOSAMENA UDAL HONEN EUSKARA PLANAREN ZENBAIT PUNTUREN EGOKITZAPENA EGITEKO.**

Udalbatzarrak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren proposamenaren berri jakiten du, Udal honen Euskara Planaren zenbait punturen egokitzapena egiteko, ondorengo ereduaren arabera:

### ***4.2.) Hizkuntzen erabilerarako jarraibideak***

*Euskararen Erabilpena Arauzkotzezko 10/82 Oinarrizko Legean, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legean eta 86/97 Dekretuan hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak ematen badira ere, komenigarria da era mailakatuan garatzea administrazio bakoitzean aipatu araubidean jasotako xedapenak, administrazio horietako jardunaren erantzule direnak hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibide zehatzak izan ditzaten.*

#### ***4.2.1.-Udal aginte organoetarako zein administrazio atal guztietarako jarraibideak***





◆ **Zerbitzu hizkuntza**

*Legeriak hizkuntza ofizialez dioenaren kalterik gabe, euskarak herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza izan behar du udal organo politiko, administrazioko atal eta lanpostu guztietan. Administrazioak herritarrekin dituen harreman mota guztietan ziurtatu beharko da lehentasunez eta nagusiki euskararen erabilera, ahozko eta aurrez aurreko harremanetan, telefono bidezkoetan, bozgorailua erabiltzen denetan, idatzizkoan eta bai tresna elektronikoko, informatiko zein telematikoen bidez gertatzen diren ere (internet, fax, posta elektronikoko etab.etan).*

*Era berean Orioko Udalak, bere kabuz edo/eta UEMAko beste udalekin elkartuta, dagozkion neurriak hartuko ditu bere udalerrri mugen baitan herritarrek gainerako administrazio publiko zein erakunde ofizialengandik jasotzen dituzten zerbitzuak —osasungintzakoak, hezkuntzakoak eta epaitegietakoak bereziki— euskaraz ere eman daitezela bermatzeko.*

*a) Ahozko harremanetan*

- 1. Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz e.a. emandakoak), euskaraz emango dira.*
- 2. Langilea euskaraz zuzenduko zaio herritarrari, eta gero administratuak hautatutako hizkuntza ofizialean jarraituko du.*

*b) Idatzizko harremanetan*

*Herritarrei, erakunde pribatuei, enpresei zuzendu beharreko dokumentazioa euskaraz egongo da, hauetakoren batek espresuki gaztelaniaren aldeko aukera egiten ez badu, horrelakoetan euskarazko jatorrizkoaren gaztelaniazko itzulpena emango zaio, jatorrizko euskarazkoaren itzulpena dela adieraziz.*

◆ **Komunikazio administratiboak: administrazioen arteko harremanak:**

- 1. Beste administrazio publiko nahiz erakunde ofizialei zuzendu beharreko dokumentazioa euskaraz emango da argitara eta beraiengandik gutxienez euskaraz ere jasotzea onartzeko irizpide nagusia jarraituko da beti.*

*Horrenbestez, horietakoren batek hala jokatu ezean —hau da, gaztelania hutsezko agiriak bidaliz gero—, igorleari itzuliko zaizkio kasuan kasuko dokumentuak eta ondorio guztietarako ez hartutzat jo direla adieraziko zaio eta gutuna bidaliko zaio, adieraziz euskararen aldeko diskriminazio*



*positiboaren izenean, adierazpen administratibo guztiak euskaraz jaso nahi direla. (6.koaderno)*

- 2. EAEko lurralde esparruaren barruan kokatutako Estatuaren eta honen menpeko administrazioetarako komunikazio administratiboak ere euskaraz bidaliko dira. Administrazioetatik gaztelera hutsean jasotako idazkiak bueltatu egingo dira –beti ere, idazkiak eragindakoa kaltetu gabe- gutun batekin batera. Gutun hori euskaraz eta gaztelera egongo da idatzita eta, euskararen aldeko diskriminazio positiboaren izenean, adierazpen administratiboak euskaraz ere jaso nahi direla adieraziko da.*
- 3. Aipatu esparruz kanpoko gainerakoei zuzendu beharreko dokumentazioa gaztelaniazko itzulpenaz lagundurik igorriko zaie, dagokion komunitatearen hizkuntzan eta gutxienez euskaraz ere bidal dezatela eskatuko. Nolanahi ere, udal bakoitzak egoki deritzon moduan jokatzeko eskumena du.*

◆ **Lan hizkuntza**

*Lan hizkuntzaren inguruko jarraibide hauek, batez ere, memoria, azterketa, txosten eta zirriborroei buruzkoak dira, eta baita hizkuntza ofiziala aukeratzeko dauden legezko xedapenek ukitu gabeko bestelako gaiei buruzkoak ere.*

*Jarraibideak, berriz, honako hauek dira:*

- 1. Plan honetan komunikazio administratiboetarako emandako jarraibideari kalterik eragin gabe, administrazio ataleko dokumentazioa hizkuntza bakarrean sortzen saiatuko gara, euskaraz.*
- 2. Hizkuntz irizpide honi jarraiki, lanpostuei tresna edo aplikazio informatikoak esleitzerakoan, udalak euskarazko bertsioa jarriko die guztiei, kasuan kasuko euskarazko bertsiorik egonez gero eta langileari aparteko arazorik sortzen ez zaien kasuetan (programen arteko bateraezintasuna...).*

**4.2.2.- Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideen itzulpen irizpide osagarriak**



*Kontuan hartuz, UEMArekin bat eginik, udal honen hizkuntz helburu behinenetakoa dela, erdaretara jo beharrik gabe, euskara administrazioko eta gizarte harremanetako hizkuntza bihurtzea, udaleko aginte organo, administrazio-atal eta lanpostu orok gai izan behar du euskaraz burutzeko bere ahozko eta idatzizko hizkuntz produkzio arrunt eta tekniko guztia.*

*Itzulpenak, horrenbestez —euskaratik edo euskarara direla—, eginkizun osagarria izango du bakar-bakarrik, aurreko puntuetan euskararen erabilerarako eman diren jarraibideekin lotuta ager litezkeen kasuan kasuko beharrian soilatarako.*

*Hau da, zehazki, hizkuntzen erabilerarako jarraibideen ondorioz aurreikusi den itzulpen beharria: herritarrei nahiz beste administrazio batzuetara elebitan bidali beharreko dokumentazioa euskaratik eta euskarara itzultzea.*

*Aipatu itzulpen beharrianari nola erantzun zehazteko, berriz, Itzulpena egin behar denean euskara zerbitzuari igorriko zaio. Zerbitzu honen esku geratuko da itzulpena egin edo kanpo itzulpen-zerbitzuren bat kontratatzea.*

## **2. HIZKUNTZ IRIZPIDEAK**

### ***Zenbait jarduera-esparrutarako hizkuntz irizpideak***

*Hizkuntz irizpideok plana garatu ahala joango dira jorratzen. Besteak beste, honako jarduera-esparruok hartuko dira kontuan:*

- 3.1. Langileen etengabeko prestakuntza*
- 3.2. Kontratazioak*
- 3.3. Dirulaguntzak*
- 3.4. Administrazioaren irudia eta argitalpenak*
- 3.5. Ekitaldi Publikoak*
- 3.6. Udal-baimenak*

*Jarraian proposamen batzuk egingo dira lanean hasteko, erakundeen hizkuntz politika koordinatze aldera, aurrerantzean osatu edo egokitu daitezkeenak.*

### **2.1. LANGILEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA**



• **Hizkuntz Prestakuntza**

*Hizkuntz prestakuntzaren inguruan administrazio honek jarraitu beharreko politikak kontuan izan behar ditu bere lanpostu zerrendako hizkuntz eskakizun zehatzak, eta baita plan honek atalerako jarritako helburuak ere.*

*Legeek arautzen dutena jarraituz, beraz, aginduak, baimenak eta laguntzak emango dira langile zerrendako enplegatuek kasuan kasuko hizkuntz prestakuntza egokia lor dezaten.*

*Hizkuntz prestakuntzaren inguruan administrazio honek jarraituko duen politikak lanpostu zerrendari aplikatzen zaion derrigorrezko indizeak adierazten dituen hizkuntz helburuak izango ditu kontuan.*

*Horretarako irizpide argiak eta bateratuak beharko dira lan-orduetan hizkuntz prestakuntzako baimenak ematerakoan:*

- 1) Derrigorrez bete beharreko HEek dakartzaten prestakuntza-beharrizanei aurre egingo zaie lehenengo. Hori dela-eta, lanpostuan derrigortasun data ezarrita duten langileen eskariak jarriko dira lehenengo.*
- 2) Udal jardueran, kanpora zein barrura begira, hizkuntz erabilera eta eragin handiagoa duten lanpostuak lehenetsiko dira.*
- 3) Edozein kasutan, lanpostuan derrigortasun data ezarrita duten langile guztiak izango dira kontuan hizkuntz prestakuntza ematerakoan, karrerako nahiz behin-behineko funtzionarioak izan.*

*Hizkuntz prestakuntza aldia bete, eta, kasuan kasuko gizalegezko luzapenak eman ondoren, dagokien HE egiaztatu ez duten izaera berezikoak ez beste lanpostuetako langileei plangintzaldi hau arautzen duen 86/1997 Dekretuak jasotzen dituen neurriak ezarriko zaizkie.*

• **Langileen etengabeko prestakuntza**

*Plangintzaldi honen lehen urtean udalean egiten diren prestakuntza-ikastaroen azterketa egingo da, horien hizkuntz egoera ezagutzeko. Ondoren, emaitzen arabera finkatuko dira aurrera begira eremu honetan jarraitu beharreko hizkuntz irizpideak. Bien bitartean, ondorengo hizkuntz irizpide orokorrak aplikatuko dira:*



- β *Arian-arian ikastaroak euskaraz egiteko eskaintza ugarituz joango da hizkuntz gaitasun nahikoa duten langileentzat.*
- β *Prestakuntza ekintzen eskaintzen artetik, izaera orokorra dutenek izango dute lehentasuna.*
  - β *Prestakuntza eskaintza guztietan espresuki aipatuko da ikastaroan erabiliko den hizkuntza.*
  - β *Euskarazko eskaintzaren ezaugarriek gaztelaniazkoarenak bezain erakargarriak izan beharko dute.*

## **2.2. KONTRATAZIOAK**

### **2.2.1. Aldi baterako langileen kontratazioa**

*Edozein dela ere egitekoa, aldi baterako langilerik kontratatu behar izanez gero, Udalak plantillako langileei kasuan kasuko betebeharren arabera exijitzen dien HEren pareko euskara-gaitasuna eskatuko die.*

*Horretarako, deialdian espresuki zehaztuko da zein den ondorengo euskara-mailetatik kasuan kasuko kontrataziokoan eskatuko dena:*

- *Ahoz eta idatziz euskara ulertzea (1HE)*
- *Euskara ulertzea, mintzatzea eta irakurtzea (2HE)*
- *Euskara ulertzea, mintzatzea, irakurtzea eta idaztea (3HE)*
- *Gaitasun maila jasoak euskararen ulermen, mintzamen, irakurmen eta idazmenean (4HE).*

*Beharrezkoa denean, beraz, Udalak kontratazioa egin aurretik dagokion euskara-proba egingo die izangaiei.*

### **2.2.2. Kontratazio administratiboak**

- 1. Udalaren eta honen erakunde autonomoen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko da kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d atalean ezarritako neurriak dagozkion ala ez<sup>1</sup>.*
- 2. Kontratazio-gaia den prestazioak zerbitzuaren erabiltzaileekiko, edo, oro har, jendearekiko harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997*

<sup>1</sup> 18.d. kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen.



*Dekretuaren 18.d atalean ezarritakoari jarraiki, honako neurriak hartuko dira:*

- 1. Erabiltzaileek, eta, oro har, herritarrek euskaraz atendituak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.*
- 2. Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz ematea bermatu beharko du kontratistak.*
- 3. Kontratazio guztietan erabiltzen duten euskara kalitatea bermatu beharko da, argitasuna eta ulergarritasuna ziurtatzeko.*
- 4. Kontratazio-gaia herritarren zuzeneko zerbitzu-prestazioa denean edo/eta herritarren adierazpeneko jarduketetan (errotuluak, abisuak...) aipatu hizkuntz baldintza horiek betetzen ez badira, edo, pleguetan zehaztutakoaren arabera, prestazioa emateko euskarazko hizkuntz gaitasuna duten nahikoa langile jartzen ez bada, espedientea irekiko da kalte-ordainak eskatzeko, edo, prestazioaren ezaugarriak kontuan izanda, bete gabeko baldintza funtsezkoa bada, kontratua bertan behera uzteko.*

*Udaletan egin ohi diren kontratazio motak kontuan hartuz, lau kontratu mota daude:*

*K-1/ Udal ondasunen mantenimendu-kontratuak*

*K-2/ Aholkularitza teknikoa emateko kontratuak*

*K-3/ Herritarrei zerbitzua emateko kontratuak*

*K-5/ Hornidurak*

*Orioko Udalean horrela aztertu dira (Ikus III. Eranskina, 7. Koadernoan):*

### **2.3. DIRULAGUNTZAK**

*Gizarte-zerbitzuetakoak ez beste dirulaguntzak esleitzerakoan —kultur, kirol-eta aisialdi-mailakoak batik bat—, udalak kontuan izango du eskatzaileak eskaera egiteko zein zerbitzua emateko dagien euskararen erabilera, eta, zehazkiago, ondorengo eskatuko du:*

- 1. Dirulaguntzaren xede den ekintza —haur eta gazteei zuzendua denean, 25 urte bitarte— euskaraz egingo dela bermatzea, eta, 25 urtetik gorakoei zuzendua denean, Orioko euskararen indizearen arabera jokatu da.*



2. *Dirulaguntzaren xede den ekintzaren publizitatea euskaraz egitea, gutxienez beste hizkuntzen maila berean, bai kopuruari, bai tamainari dagokienez.*
3. *Aipatutako ekintzetan hizkuntza kalitatea bermatu beharko da, argitasuna eta ulergarritasuna ziurtatzeko.*
4. *Beheragoko orrialdeetan hirigintza-alorreko udal-baimenetako hizkuntz irizpideak jorratzen dituen 2) puntuaren eraginkortasunerako, udalak zehaztuko du nola lagundu beren jardunbideko errotulazioa gaztelaniatik euskarara aldatzen duten establezimenduak.*

#### **2.4. ADMINISTRAZIOAREN IRUDIA ETA ARGITALPENAK**

*Orioko Udalaren irudi eta argitalpenetan euskarak behar duen presentziari buruzko irizpideak finkatzeko honako jarraibideak beteko dira:*

1. *Udalaren eta honen menpeko erakundeen idazki oro beti euskaraz behintzat argitaratuko da.*
2. *Helburua udalerrian zabaldu beharreko agiriak euskaraz argitaratzea da.*
3. *Iragarpen ofiziala egin beharreko agiriak euskaraz argitaratuko dira.*
4. *Helburua sortze hizkuntza euskara izatea da eta behar-beharrezkoa denean gehituko zaio gaztelerazko laburpena.*
5. *Arreta berezia jarriko zaio, udaleko agirietan hizkuntza kalitatea zaintzeari. Udalak, beti, kontuan hartu beharko du agiri ororen hartzailea nor den eta horretara egokitu. Agiriak argiak eta ulergarriak izan behar dute.*
6. *Herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuko dira.*

#### **2.5. EKITALDI PUBLIKOAK**

*Udaleko edo honen erakunde autonomoetako kargu eta enplegatuek euskara erabiliko dute udalerrian egin litezkeen ekitaldi publikoetan, erakundeetan duten kargu edo lanpostuagatik ari badira.*

*Era berean, udalak zainduko du halako ekitaldietarako izendatuko dituen pertsonak euskarazko hizkuntz gaitasun egokia dutenak izan daitezen.*

*Behar beharrezkoa denean hitz egingo da gaztelaniaz.*



## **2.6. UDAL-BAIMENAK**

### **2.6.1. Hirigintza**

1. *Udalak herritar arruntei edota jardunbide honetako enpresei hirigintzako baimenen bat eman behar dienean, ondorengo baldintzapean emango die: ageriko hizkuntz erabileran bederen —iragarpen, errotulu, ohar, seinale etab.etan, alegia— euskara erabil dezatela, alegia; edota, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskara gutxienez gaztelaniaren pareko presentziaz, kopuruaren eta tamainaren aldetik.*
2. *Era berean, irekitzeko baimena emateko espedientean Udalak errotulazioa euskaraz jar dezala eskatuko dio eskatzaileari (Abenduaren 22ko 6/2003 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena).*

### **2.6.2. Udal-instalazioak**

*Edozein delarik ere ekitaldia, Udalaren jabegoko instalazioak erabiltzeko baimena behar den kasuetan Orioko Udalak euskara erabiliko dela ziurtatzea exijituko du, jendaurreko ekitaldietan batik bat.*

*Baldin eta pertsona edo erakunderen batek baimena jaso eta Udalaren hizkuntz baldintzei jaramonik egiten ez badie, Udalak bere esku dituen kasuan kasuko neurriak hartuko ditu (baimen-ukapena, isuna...) hizkuntz araudia bete ez dutenen aurka.*

### **2.6.3. Jaietako postuak**

*Jaiak direla-eta postua jartzeko baimen-eske datozenei, honako neurriak betetzearen baldintzapean emango die baimena Udalak:*

1. *Prezioen eta oharren errotuluak euskaraz bederen jartzea. Euskarak gutxienez gaztelaniaren pareko presentzia izango du, kopuruaren eta tamainaren aldetik.*
2. *Udalak girotzeko musika euskal musika izan dadin sustatu edo bultzatuko du.*

*Aipatu baimen guztietan hizkuntza kalitatea bermatu beharko da, argitasuna eta ulergarritasuna ziurtatzeko.*

Segidan eta Kultura, Hezkuntza eta Euskara Batzorde Informatzaileak 2004ko irailaren 14an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenaz, gaia eztabaidatu ondoren, eta Arruabarrena (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV),





Genova (EAJ-PNV), Sarasua (EAJ-PNV), Etxeberria (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), Legarra (EA) eta Cotado (EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira BAIEZKO BEDERATZI BOTO, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodríguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzioarekin, guztira ABSTENTZIO BAT, honako hau **ERABAKITZEN DU**:

**ONARTZEA** Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren proposamena Udal honen Euskara Planaren zenbait punturen egokitzapena egiteko, akordio honetan agertzen den idatziaren arabera.

## **10. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ANDOAINGO UDALEAN 2004KO URRIAREN 16AN IZANDAKO GERTAEREN INGURUAN.**

Jesús Rodríguez Pousa, Orioko Udal Talde Sozialistaren izenean eta ordezkari gisa, aurkeztutako mozioa irakurtzen du Andoaingo Udalean 2004ko urriaren 16an izandako gertakarien harira:

### **CONTRA EL ASALTO DEL AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN**

*El pasado día 16 de octubre un grupo de individuos asaltó el Ayuntamiento de Andoain pasando por encima de los guardias encargados de su custodia. No es la primera vez que personas que se identifican como pertenecientes o simpatizantes de la “izquierda abertzale” se introducen por la fuerza en instalaciones municipales, de Andoain o de cualquier otro municipio vasco, alteran por la fuerza el orden de las actividades de las corporaciones, o insultan y amenazan a los representantes legítimamente elegidos y al resto de ciudadanos.*

*La Democracia, aparte de las definiciones tópicas e ingeniosas de las que gustan los intelectuales del concepto vacío, nos iguala a todos en dos momentos fundamentales: en democracia todos somos iguales ante la urna y ante la Ley. Pero la Democracia es, ante todo, la superación del gobierno del más fuerte por el gobierno de la mayoría; y lo ocurrido en Andoain no es más que otro episodio en el que la fuerza se pretende imponer sobre la mayoría.*

*Todas las Instituciones vascas están conformadas con el más escrupuloso respeto a reglas de mayorías. Nadie puede arrancarle a nuestra sociedad su derecho a organizarse de*



*forma democrática; y ésta forma de organización excluye el uso de la amenaza, la coacción, la extorsión y cualquier tipo de violencia. La ocupación por la fuerza de instalaciones municipales con el fin de realizar supuestas reivindicaciones es un acto antidemocrático, que en ningún modo se identifica con practicas de izquierda progresista y democrática*

*Por ello, el Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de Orio presenta la siguiente moción para su consideración y aceptación por el Pleno Municipal:*

*El Pleno del Ayuntamiento de Orio, manifiesta:*

- Su rotunda declaración de que todas las instituciones municipales de Euskadi están conformadas de acuerdo al respeto a las más escrupulosas normas democráticas.*
- Su mas firme condena a cualquier ocupación de instalaciones municipales.*
- Su denuncia de los hechos y solicitud de actuaciones de depuración de responsabilidades a que hubiera habido lugar.*

Segidan gaia eztabaidatu ondoren, eta Arruabarrena (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Sarasua (EAJ-PNV), Etxeberria (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), Legarra (EA) eta Cotado (EA) zinegotzien kontrako botoekin, guztira EZEZKO BEDERATZI BOTO, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodríguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren aldeko botoarekin, guztira BAIEZKO BOTO BAT, honako hau **ERABAKITZEN DU**:

**EZ ONARTZEA** Orioko Udal Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa, Andoaingo Udalean 2004ko urriaren 16an izandako gertakariak direla eta.

## **11. ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ ETA EAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, MENDEBALDEKO SAHARAKO HERRIAREN DETERMINAZIO LIBRERAKO BAKE PLANAREN ALDE.**

Segidan Idazkari-Kontuhartzaileak Funtziotan aurkeztutako mozioa irakurtzen du:

*Apirilaren 29an Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Batzordeak onartutako azken ebazpenak (1541) Nazio Batuen misioaren mandatua Mendebaldeko Sahararen erreferendumerako (**Minurso**) berriz luzatzea erabaki du.*



*Bertan baieztatzen da, 2004ko urtarrilaren 30eko 1523 ebazpenean egin bezala, 2003ko uztailaren 31ko 1495 ebazpena, **Mendebaldeko Saharar Herriaren libre determinaziorako Bake Plana**, James Baker Idazkari Orokorraren ordezkari bereziak aurkeztuta, bi aldeen arteko akordioan oinarritutako irtenbide politiko egoki gisa.*

***“Planaren helburua Mendebaldeko Saharan bizi den gatazkari irtenbide politiko bat ematea da, Mendebaldeko Saharar Herriaren libre determinaziorako eskubidea aurreikusten duena, 2002ko uztailaren 31ko Segurtasun Batzordearen 1429 ebazpenaren lehenengo paragrafoan ezartzen den bezala”.***

*Mendebaldeko Saharako egoerari dagokion 2004ko urtarrilaren 19ko NBEko Idazkari Orokorraren txostenean luzapena proposatzen da, geroago Segurtasun Batzordeak onartu zuena 2004ko apirilaren 30a arte, **“Bake Planaren azken erantzunaren inguruan Marokkorekin kontsulta berriak egin ahal izateko”.***

*Bestalde, jakina denez, Komunitate Internazionalak errekonozitu duen balore handiko eta jatortasun keinu baten adierazgarri, Fronte Polisarioak iragan uztailean aipatu Bake Planari baiezkoa eman zion.*

*Berriki, Kofi Annan-ek “24en Batzordea” izenekoak egindako sesioen epe berriaren irekiera hitzaldian esan du “kolonialismoa XXI. mendean anakronismo bat dela”, eta aurka egin behar zaiola, potentzia administratzaileek NBEko Batzorde Bereziarekin lan egin dezaten Nazio batuen Erakundearen zerrendaren barruan oraindik agertzen diren 16 lurralde ez autonomoen deskolonialismorako, hauen artean Mendebaldeko Sahara egonik.*

*Aurreko guztia kontuan hartuta, Orioko Udalak*

#### **ADIERAZTEN DU:**

*- Saharar Herriari laguntza ematea erreferendum libre, demokratiko eta argi baten bidez autodeterminazioa eta independentzia lortzeko eskubidea izateko.*



- *Mendebaldeko Saharar Herriaren libre determinaziorako Bake Planarekin bat egitea, bide eraginkor gisa eta arazoaren irtenbide baketsuak bilatzeko marko gisa.*

- *Drama honetako biktima inozentearekin konpromiso solidarioa, Herrialde Saharaiarra, gerrak, gosetea, gaixotasunak, banatze mingarriak, zapalketak eta bizitzarako oinarrizko gaien falta pairatu behar izanagatik.*

### **ESKATZEN DIO:**

*Espainiako Gobernuari:*

*NBEren aurrean jarrai dezala Mendebaldeko Saharar Herriaren libre determinaziorako eskubidea defendatzen, eta bereziki Mendebaldeko Saharar Herriaren libre determinaziorako Bake Plana, eta dagokion papera bete dezala potentzia kolonial ohi gisa, postura aktiboa hartuz Afrikako azken koloniarekin, Mendebaldeko Sahara, bukatuko duen irtenbide justu baten bila.*

*Era berean eskatzen diogu Marokkorengan duen eragina erabiltzeko, Bake Plana, Nazio Batuek emandako epea baino lehen, onar dezan.*

*Nazio Batuen Segurtasun Batzordeari:*

*Marokkoko Gobernua presiona dezala behin betiko erantzukizunak bete ditzan eta nazioarteko legalitatea onar dezan, Mendebaldeko Saharar Herriaren libre determinaziorako Bake Plana ezartzea erraztuz, luzapen eta berandutza gehiago ekidinez.*

*Nazioarteko Komunitateari orokorrean, Gobernuak, Parlamentuak, Alderdi Politikoak, ...:*

*Ahal dezaten guztia egin dezatela eta Nazio Batuekin bat egin dezatela egoera desblokeatzeko, bake eta egonkortasun garai berri bati hasiera emanaz, Arabiar Magreb osoa izango baita onuradun.*



Segidan, gaia eztabaidatu ondoren, **AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin, **BAIEZKO HAMAR BOTO**, honako hau **ERABAKITZEN DU**:

**ONARTZEA** EAJ eta EAk aurkeztutako mozioa Mendebaldeko Saharar Herriaren libre determinaziorako Bake Planaren alde.

## **12. ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ez ziren izan.

Aztergai zerrendatik kanpo beste erabaki batzuk hartu ditu Udalbatzarrak, gaia alde zurretik eta **AHO BATEZ** urgentziazkoa izendatu ondoren:

## **13. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO EAJ ETA EA UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, 2004KO URRIAREN 16AN ANDOAINGO UDALEAN IZANDAKO GERTAKARIEN HARIRA.**

Segidan Idazkari-Kontuhartzaileak Funtziotan aurkeztutako mozioa irakurtzen du:

*Aurreko urriaren 16an ezker abertzalearen izenean Andoaingo Udalbatza aretoak izandako okupazioaren aurrean, Orioko Udalak honakoa dio:*

*1.- Urriaren 16an Andoaingo Udaletxean emandako indarkeria ekintzaren aurrean bere gaitzespenik gogorrena adierazi.*

*2.- Andoaingo Udaletxearekin elkartasuna azaldu, herritar guztienak diren ondasunak kudeatzeko eta zaintzeko ardura eman baitiote herritarrek.*

*3.- Era guztietako indarkeria politikoa gaitzesten du eta aukera politiko guztien arteko elkarrizketarako eta ulermenerako esparruak sortzeko ekimenaren alde egiten du, Giza Eskubide guztiak inolako salbuespenik gabe errespetatuta.*



*4.- Inolako zalantzarik gabe, aniztasun politikoaren alde dagoela eta, zentzu horretan, Alderdiei buruzko Legearen eta antzeko ekimenen aurka dagoela adierazten du, normalizatutako bizikidetzan zailtasunak baino ez dituztelako sortzen.*

Segidan, gaia eztabaidatu ondoren, eta Arruabarrena (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Sarasua (EAJ-PNV), Etxeberria (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), Legarra (EA) eta Cotado (EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira BAIEZKO BEDERATZI BOTO, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodríguez Pousa (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren KONTRAKO BOTOAREKIN, guztira EZEZKO BOTO BAT, honako hau **ERABAKITZEN DU:**

**ONARTZEA** Orioko EAJ eta EA Udal Taldeek aurkeztutako mozioa, 2004ko urriaren 16an Andoaingo Udalean izandako gertakarien harira.

**14. ONARTZEA, EGOKI BADA, TALAI PLATAFORMAREN ESKARIZ ALKATETZAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ENTZUTEGI NAZIONAL DELAKO AUZITEGI BEREZIAK UDALBILTZAREN ETA UDALBILTZA OSATZEN DUTEN KIDEEN AURKA EGINDAKO ERASO BERRIEN AURREAN.**

Segidan Idazkari-Kontuhartzaileak Funtziotan aurkeztutako mozioa irakurtzen du:

*Udalbiltza eta berau osatzen duten hautetsien aurka Espainiako Audiencia Nacional delako auzitegi bereziak egindako eraso berriaren aurrean, mozio hau aurkezten dugu Udal Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onar dezan.*

*1999ean Udalbiltza, Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra, osatu zenetik, Estatuak behin baino gehiagotan eraso dute, batipat espainiar Estatuak. Udalbiltzak, Euskal Herriko lehenengo instituzio nazionalak, Euskal Herriaren eskubideen aitortzaren alde eta nazio eraikuntzaren alde egindako lana dela eta, espainiar zein frantziar estatuak ezin izan dute onartu Euskal Herriak izan dezakeela berezko garapen instituzionala. Euskalduna jauregian sorrera batzarra ospatu aurretik hainbat mehatxu izan ziren, eta Udalbiltza Euskal Herriaren alde lanean hasi zenean eraso horiek areagotu egin ziren.*



*Espainiar Estatuko abokatuak, Udalbiltzak garatzen zituen edozein lan ildo eta ekimen blokeatzeko saiakerak nahikoak ez eta Audiencia Nacional delako auzitegi berezia izan zen 2003ko apirilean eta maiatzean Udalbiltzaren aurkako operazioa agindu zuena. Hainbat alkate eta hautetsi izan ziren atxilotuak Udalbiltzako kide izateagatik, egoitzak itxiak izan ziren, lan egitasmoak eta garapen funtsa bahituak. Gaur egun Udalbiltzako hiru kidek (Miriam Campos, Xabier Alegria eta Joseba Garmendia) espetxean jarraitzen dute.*

*Orain hilabete, Garzon epaile ezagunaren eskutik, Audiencia Nacional delakoak beste hamaika pertsona inputatu zituen "Udalbiltza auzian". Hauek irailaren 1ean eta 2an Madrilera deklaratzera deitu zituen eta deklarazioak hartu onoren, libre geratu ziren inolako bermerik gabe.*

*Iragan irailaren 22an, 21 euskal herritarren aurkako auziperatzeko autua kaleratu zuen Garzon epaile espainiarrak. Udalbiltzaren aurka bidegabe abiatutako eraso berri honetan, erakunde armatuko kide izatea eta fondoak bidegabeki erabiltzea leporatu zaie Eider Casanova, Lander Etxebarria, Leire Idoiaga, Miriam Campos, Loren Arkotxa, Maribi Ugarteburu, Juankar Alduntzin, ~ Xabier Irigorri, Larraitz Sanzberro, Joseba Garmendia, Miren Josu Aranburu, Karmele Urbistondo, Xabier Alegria, Imanol Esnaola, Miren Odriozola, Urko Irastortza, Oskar Goñi, Expe Iriarte, Jasone Astibia, Txema Jurado eta Xarlo Etxezarretari.*

*Baina gezurak gezur eta erasoak eraso ondo baino hobeto dakigu zen den Udalbiltzak bultzatzen duen lana eta gure udaletako hautetsi eta hautetsi ohi hauek izan duten konpromisoa. Hori da, eta ez beste ezer, Espainiako estatuak zigortu nahi duena, udalen bidez herriekiko konpromisoa eta Euskal Herriaren aldeko lana. Eta ez da kasualitatea eraso berri hau une hauetan gertatzea, Udalbiltza berrabiatu den unean hain zuzen ere, Udalbiltzak bere sorreratik harturiko konpromisoak betetzeko urrats berriak ematen hasia den honetan. Hori baita erasoaren benetako helburua, herri gisa dagokigun eskubideen aitortzaren alde egiten den lana, Euskal Herriaren eraikuntzaren aldeko lana, bizi dugun gatazkan konponbide demokratiko baten aldeko lana, geldiaraztea .da espainiar Estatuak lortu nahi duena. Eta helburu horretan temati darrai espainiar gobernuak, lehenbizi PPren eskutik eta ondoren, zoritxarrez, PSOEn eskutik.*



*Aipatu guztia kontutan izanda, inoiz baino garrantzitsuagoa suertatzen da udaletatik Udalbiltzak egiten duen lana bultzatzea eta gure udaletako kide diren hautetsi hauei gure elkartasun osoa helarazteaz gain beraien konpromisoarekin bat egin eta Euskal Herriaren alde lan egiten jarraitzea.*

*Hala egin zuten abuztuaren 30ean Euskal Herriko hainbat eragile sozial, politiko eta sindikal esanguratsuek Euskalduna Jauregiaren aurrean, adierazpen hau kaleratu zutenean:*

*1) "Edozein proiektu eta ideia politikok eskubide eta zilegitasun osoa izan behar duela edozein eszenategi demokratikotan, horrela Euskal Herrian ere.*

*2) Ildo beretik, euskal herritarrok zilegi dugu geure tresna politikoak, sozialak zein instituzionalak antolatzeko eskubidea, oinarri demokratikoen arabera, horregatik inolako jazarpenik jasan gabe.*

*3) Orain salatzen den kasuan, nabarmena da inputatuen izaera publikoa, hauteskundeetan hautatu baitituzte hiritarrek, eta pertsona publikoak baitira. Zeregin publiko horretan jardun izanaren ondorioz, hain zuzen*

*ere, jasaten dute oraingo eraso hau.*

*4) Gure arteko desberdintasunen gainerik, esparru anitza baita hemen azaltzen dena, gure elkartasuna adierazi nahi diegu lehen zein orain auziperatu dituzten guztiei*

*5) Auzibide judiziala ez da modurik egokiena arazo politikoei konponbidea aurkitzeko. Aldiz, eragile politiko guztiei hitza ematea da irtenbide*

*Hau guztia kontutan hartuta honako mozioa aurkezten dugu Udal Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onar dezan:*

***1.- Udal hau bat dator eragile sozial, politiko eta sindikalek kaleratu zuten adierazpenarekin. Udalbiltzaren aurka espainiar Audiencia Nacional delakoak abiatutako eraso berri hau onartezina dela adierazten du. Udalbiltzak Euskal Herriaren eskubideen aitortzaren alde eta nazio eraikuntzaren alde egiten duen lana ezinbestekotzat jo, eta berea egiten du udal honek.***





*2.- Udal honek bere elkartasun osoa adierazten die egotziak izan diren hogeita bat pertsoneri, baita Udalbiltzako kide izateagatik aurretik prozesatuak izan direnei eta egun espetxean daudenei ere. Eta bere babes osoa helarazten dio udal honetako hautetsia den..... .., bere herriarekiko eta Euskal Herriarekiko duen konpromisoagatik zigortua izan daitekeen honetan.*

*3.- Udal honek argi adierazi nahi du Euskal Herriari herri gisa dagozkion eskubideak aitortu behar zaizkiola, eta bide horretatik herri honek bizi duen gatazkaren konponbide demokratikoa etorriko dela.*

*4.- Udal honek bere laguntza osoa eskaintzen dio auzi honetan inputatua izan den udal honetako hautetsiari zein bere familiari, eta behar duenerako gertu izango dela jakinarazten dio. Era berean, elkartasun eta babes hori herritarrek ere adierazi dezaten "Bai Udalbiltzari, Bai Euskal Herriari" lelopean kontzentrazioa deituko du Udal honek datorren .....*

*5.- Udal honek mozio honen berri emango die herritarrei zein komunikabideei.*

Segidan, gaia eztabaidatu ondoren, eta Arruabarrena (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Sarasua (EAJ-PNV), Etxeberría (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), Legarra (EA) eta Cotado (EA) zinegotzien kontrako botoekin, guztira EZEZKO BEDERATZI BOTO, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodríguez Pousa (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren ABSTENTZIOAREKIN, honako hau **ERABAKITZEN DU**:

**EZ ONARTZEA** Talai Plataformaren eskariz Alkatetzak aurkeztutako mozioa, Entzutegi Nazional delako auzitegi bereziak Udalbiltzaren eta Udalbiltza osatzen duten kideen aurka egindako eraso berrien aurrean.

**15. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO EAJ ETA EA UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ENTZUTEGI NAZIONALAK IREKITAKO SUMARIOAN EZKER ABERTZALEKO UDAL**



**HAUTETSIEN ASANBLADAREN HAINBAT LAGUNEK DEKLARATZERA DEITUTAKO ZITAZIOAREN AURREAN.**

Segidan Idazkari-Kontuhartzaileak Funtziotan aurkeztutako mozioa irakurtzen du:

Entzutegi Nazionalak irekitako sumarioan Ezker Abertzaleko udal hautetsien asanbladaren hainbat lagunek deklaratzera deitutako zitazioaren aurrean, ustez erakunde terroristan parte hartzearen delitua egotziz, *UDALBILTZA-k*® ondorengoa adierazi nahi du:

1- Estatuko botereen aldetik ekiniko dinamika gaitzestea, erabateko “sorgin ehiza” baten barruan ETArekin ingurunerik ez dagoen egoera batean, baizik eta “guztia ETA” izanik.

Besterik gabe errugabetasun-presuntzioa aplikatzen ez den dinamika batean iraindu, arbuiatu, boikoteatu eta kriminalizatu egiten dira euskal gizarteko sektore zabalak, ordezkarik eta entitate kulturalak, politikoak edota gizartekoak, komunikabide eta enpresak indarrez hartuz eta itxiaraziz, eta zuzendari, editore eta nagusiak atxilotuz. Inseguritate juridikoa oinarri duten prozesuak dira, babesik gabeko egoera batean murgilduz, epaiketaren zain eta epai irmorik gabe urteak emanaz. Prozesu hauetan eskubideak eta askatasunak murriztuak eta baliogabetuak izaten dira, pairatzen dituztenei kalte konponezinak sortuz.

2- Uste osoa agertu nahi du Euskal Herrian bakea eta elkarbizitza eta norberaren aspirazio politikoak ez direla etorriko inposizioaren bidetik, ezta sorgin-ehiza eta erantzun bortzen aldetik ere, baizik eta metodo demokratikoen defentsa irmo eta erabileratik, bai eta Euskal Herria osatzen duten herritarren borondateatik ere.

Segidan, gaia eztabaidatu ondoren, eta Arruabarrena (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Sarasua (EAJ-PNV), Etxeberría (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), San Sebastian (EAJ-PNV), Legarra (EA) eta Cotado (EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira BAIEZKO BEDERATZI BOTO, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodríguez Pousa (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren KONTRAKO BOTOAREKIN, guztira EZEZKO BOTO BAT, honako hau **ERABAKITZEN DU:**



# ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkuraren akta •

2004/10/26

**ONARTZEA** Orioko EAJ eta EA Udal Taldeek aurkeztutako mozioa, Entzutegi Nazionalak irekitako sumarioan Ezker Abertzaleko udal hautetsien asanbladaren hainbat lagunek deklaratzera deitutako zitazioaren aurrean.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria Funtziotan naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA**